

EUSKAL HERRIA-SENEGAL: ESPEDIZIO KULTURALA

Mikelazulo



1.- Bide zahar-berrien atzean

Gizakiaren bizitza bidai bat dela esaten omen da. Eta gizakia bera, bidaiatuz osatu da. Afrika aldeko ohia-
netako hominido gazteek, aldaketa ekologiko-sozial-genetiko bortitzen eraginez, arbolak utzi eta sabana alde-
ra jo zutenean, abentura harrigarri bati eman zitzaion hasiera: gizadiaren bidai hasi zen. Handik, munduko
lurralde guztietara zabaldu ziren.

Duela 30.000-20.000 urte bidaiari haietako batzuk Pirinio aldera iritsi ziren eta gurean zibilizazio harri-
garri bat, hartzairen zibilizazioaren adarretako bat, osatu zuten. Kobazuloetako margo-irudiak, dantzaren magia
eta eskuara (euskara)-ren hitza sortu zituzten. Milaka urteetan, hartzairen atzean, atzak irekitako bidari eutsiz,
lurra eta giza-bizitza landuz eta landuz, bidai berriak egiteko, ekia sortzen den alderako espedizioa egiteko, gaitu
ziren.

Oteizaren hitzetan, **Max d'Azileko harri margotu ibiltariak** bidai haren mugarriak ziren. Eta bidai hark,
Europako lehen espedizio kulturalak, zibilizazioen arteko harreman orekatuzko 1.500 urteko esperientziari ireki
zion atea. Askoz geroago, bidai harrigarri haren oiartzun mitikoak “Gilgamesh eta Andiku” poemari islatu
ziren, eta geroago Greziako mitologian txertatu zen: “Argonautak. Urrezko ardi-larruaren espedizioa”.

Geroztik, asmo berdinez egindako giza-bidaiak ugariak izan dira. Baina Iliada moduko gerra-espedizio-
ak, konkistak eta kalamitatearen bidaiak egin dira eta ospatu dira, laudatu dira eta gure arimak, horrekin,
pozoindurik geratu dira. Horien miresle izaten erakutsi nahi izan digute. Horien miresle eta praktikante:
Ameriketako konkista, ondorengo kolonizazioa, geroko miserizazioa eta oraingo dominazioaren globalizazioa
dira gure buru-galduaren ondorio tristeak.



Mikelazuloko bidaiariak, argonautak bezala, eta Pirinioetatik ekialderuntz abiatu ziren euskaldun haiek bezala, badoaz, begiak eta bihotzak irekirik, besteei begirunea erakustea eta haiena jasotzea. Hegoaldera, Senegal beltza aldera. Han bitzta, gizadia, beltza, ederra aurkitzera. Horrela, XXI. mendean gizatasuna osatzea helburu duen eta aspaldian abiaturiko bidai inizatikoari, berriro ere, ekingo diote: Euskal Herriko espedizio kulturala.

2. Elkar ezagutzearen poza

Zerbait badakite. Bidaiariak lurralde ezezagunari buruz zerbait badakite. Senegal izeneko lurralde-estatu batera doazte. Mapa begiratu dute. Bainan nolakoa da lurra, nolakoak hiriak eta hirixkak? Lurralde hartan bitzta. Nolakoa? Lurralde hartan gizakiak? Nolako hizkuntzak? Zenbat? Wolof, peul, serere, diola, malinke, soninke, bambara...39 denera. Nola daude hizkuntzak? Nonbait, euskararekin bezala, hango guztiekin gertatzen da: bakoitzaren lurraldea estatu diferenteetan zatitua eta inon ez osatua. Ofizialak batzuk, besteak ez, eta denak menpeko egoeran. Nolako gizarte-harremanak? Auzolanik ba al dute? Eta batzarrak? Eta nolako ipuinak? Nolako kosmobisioa? Sorginik ba al dute? Mari eta basajaunak? Esklabutzak indar izan al zuen? Inperioak ezagutu zituzten? Eta orain, argi elektrikoa ba al dute? Eskoletan nor admiratzen dute? Osasunari buruz zer nolako altxorrak dituzte? Eta nolako gabeziak?

Zerbait badakite...**bainan ederrena jakiteke dagoena da.**

Dakar, Debopp, Goree, Cassamans, Lugo, Sant Louis... bidaiaren geldialdiak izango dira. Eta geltokietan eta bideetan barna **“altxor izkutuaren”** bila saiatuko dira Mikelazuloko bidaiariak. Abantaila bat dute: ez dakite altxorra zer den. Hori bera da lurralde hartatik ekarriko duten sorpresarik handiena: altxorraren definizioa bera. Eta beste abantaila bat ere: badakite altxorra aurkitzeko giltza zein den: **begirunea.**

Ez doazte hirugarren munduko herri beltza, txiro, mehatxugarria, pobretu eta triste bati limosnak ematera. Herri aberats (kosmobisioz, historiaz, lurraldez, gizatasunez...) aberats diren herri batzuekin topo egitera doaz: **“Altxa kopa, topa eta opa”** egitera, agur-dantza dantzatzera.



3. Hartu-emanaren laguntasuna

Mikelazuloko bidaiari euskaldunek tropa berezia osatu dute: dantzariak, musikariak, malabaristak, idazleak, antzerkigileak, pintoreak, argazkilariak, grabadoegileak. Direna emateko prest doaz. Horrela, hainbat herritan emanaldiak emateko hitzmana daude.

Aldi berean bidaiariak handik jasotzeko irrikitan doaz. Bertatik bertoko erritmoak ikasi, ohiturak partekatu, mitologiak ezagutu, herriko festeetako magia zurrupatu... eta batez ere **besteari begirunez irekitzeak sor dezakeen abenturari** men egiteko prest. Izan ere, mikelakoek, ondo gogoan dute Eduardo Galianok "Patas Arribas" liburuan zioena: "*Nos enseñan a ver al otro como una amenaza, en vez de verlo como una promesa*". Hori da, bada: besteak dira gure zain dagoen altxor izkutua, gure aurrean aurkitzen dugun promesa.

4. "N'es pas boira la vita!?"

Okzitanera hizkuntzaren esaera honek dio: ez al da ederra bizitza? Mikelako jendea itzuliko da bere espediziotik. Zakuak bete-beteak ekarriko dituzte. Poztasunez, lehenik. Eta poztasunaren barruan gizatiarrago bihurtu diren lagunak aurkituko ditugu. Eta gizatasunaren legean, lagun-giroan ernalduriko egitasmoak eta laguntzak. Haiek (berdintasunean elkarturik), Afrika beltzeko jadanik lagun minak, gure Mikelaren bizitzaren zati ederra bihurtuko dira. Hemen, gure txokoan, haiek gogoan, gizadi osoaren espiritua lantzen jarraituko dugu. Jarraituko dugu esker mila emanaz Senegaleko lurraldeetako lagunei.

